



MUSIKA

Garraztasunaren berrirakurketa



94/20

SEÑOR NO

BANG RECORDS

IKER BARANDIARAN

Donostiako Señor No talde beterrak ezaguna da aspalditik bai Euskal Herrian, baita kanpoan ere, betidanik zirkuitu komertzialetik kanpo egon bada ere. Taldea 90eko hamarkada hasieran sortu zuten La Perreran ari-tutako hainbat lagunek. Punk-rock eta rock-and-roll zikinenaren eszenan zizelkatutako izena da kaleratutako diskoengatik eta, batez ere, eskainitako zuzeneko beroengatik.

Taldeakideek beti beren kasa egin dute lan korrontearen kontra, eta lokomotora batek baino indar handiagoa duen Xabi Garrek gidatuta, ez dute inoiz oztipoen aurrean atzera egin, ezta kontzertu eskasik eskaini ere. Hasierako ilusioa eta kementa mantentzen dute, eta orain, kultu-

rak hain garai zailak bizi dituen honetan ere, aurrera egitea erabaki dute. Azken 25 urte hauetan kaleratutako hainbat single-kanta puskak berrir grabatu eta bestelako ukitua eman diete. Emaizta haien bidelagun eta anai izandako Roy Loneyren omenez Hendrik Röverren estudioan grabatutako bilduma dotorea da.

Etapia honetan Joseba B. Lenoir musikari handia batu zaie hirugarren gitarra jotzera, eta emaitza are gehiago aberastea lortu du. Bertan badira *Masacrante*, *Perra*, *Está bien* eta *Mira mi dedo*-ren moduko klasiko garrantz eta bizi-bizirik, haien zuzenekoetan inoiz falta ez direnak, eta irakurketa berriz baina tempo zabalagoz landutakoak. Hala ere, taldeak betiko osagaiak ditu: Stooges, MC5, talde

australiar bortitzenak, Union Carbide Productions, TSÖÖL eta wah-wah barra-barra.

Baina, horiez gain, badira bestelako sorpresa atseginak ere: *La ruta interior*-ek gogoz edaten du The Sound-track Of Our Lives-en misteriotik sitar eta guzti. *Off*-ek tempo erdiari eusten dio rock-and-roll eroenean amildu arte. *Algo que recordar* balada rockeroa da, indartsua eta borobila. *A todas luces*-ek malenkonia eta rock-and-roll basatia batzen ditu. *La droga* da boskotearen oinarri den Stooges-en deia darra: azkarrak, bortitza, rockeroa, eroa. Eta, azkenik, *Meando en la niebla*-k beste kutsu bat dauka: tangoaren oinarritik abiatuta pieza rockero lasaiagoa da. ●